

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hiru domina irabazi ditu Lanbide Heziketako Spainskills txapelketan

Oier Neol (CI Donibane) Urrea zurgintzan, Andrés Araiz (CIP Donibane) zilarra elektronikaren eta David López (CI Donibane) brontzea ebanisterian

Larunbata, 2019.eko martxoak 30


Lanbide Heziketako Nafarroako ikasleek urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak lortu dituzte Madrilen lehiatutako Skills txapelketan. Hiru egunez hamaika ikaslek hainbat erkidegoetako ikasleekin lehiatu aritu dira eta ez zaie batere gaizki joan: hiru dominarekin itzuli dira, Oier Noel Burlada, Andres Araiz Vega eta David López Ciordiak eskuratutakoak.



Nafarroako ordezkariak SpainSkills2019.

Bi urterik behin izaten da txapelketa eta modalitate bakoitzean lortutako gaitasunak erakusteko hiru egun izan dituzte aurten Nafarroako ordezkariak. Sei ikastetxeko ikasleak aritu dira lehiatu oraingoan: Virgen del Camino, Donapea, ETI, Donibane, Nekazaritza-Basogintza ZI eta Lizarrako Politeknikoa. Inoizko ordezkariarik handiena izan da oraingoa eta horrek ere bere emaitzak izan ditu: hiru domina.

Urrezko domina Oier Neol Burladak irabazi du. Donibane zentro integratuko ikaslea onena izan da zurgintzan, Fernando Ziganda Urdanpilleta tutorearen laguntzarekin. Zilarrezko domina irabazi du Andres Araiz Vegak elektronika modalitatean. Bere tutorea Donapea ikastetxeko Libertad Martínez del Campo izan da. Azkenik, David López Ciordiak brontzezko domina eskuratu du ebanisteria modalitatean. Bere tutorea Alfonso Erro Ibero da, Donibane ikastetxekoa.



Oier Neol Burlada, urrea zurgintzan.

Galería de fotos



Andres Arazi Vega, zilarra elektronikan.



David López Ciordia, brontzea ebanisterian.